

XVIII. MENDEA: ANTZINAKO ERREGIMENAREN KRISIA

Antzinako Erregimena:

- ✓ Aro Modernoan Europak zuen antolaketa politikoa, ekonomikoa eta soziala: monarkia absolutua, jauntxoek nekazaritzan oinarritutako ekonomia eta estamentuzko gizartea.
- ✓ Erregimen feudal klasikoaren ondorengo erakuntza sozial, politiko eta ekonomikoa; Iraultza Frantsesera bitartekoa.

Iraupeneko nekazaritza:

Etekin oso txikiak lortu eta autokontsumora bideratzen zituen nekazaritza. Ligorriaren hiru urteko txandakatzean oinarritutako laborantza sistema zen ardatza, ez zegoen laboreen espezializaziorik eta trukeak urriak ziren.

Utrecht-eko Ituna:

- ✓ Espainiako Ondorengotza Gudari amaiera eman zion akordioa (1713-1715). Espainia, Frantzia, Britain Handia eta Herbehereek sinatu zuten. Felipe V.ak Espainiako koroari eutsi zion, European zituen hainbat lurralde ematearen truke.
- ✓ Nazioarteko orden berria planteatu zuen akordioa izan zen, "botereen banaketa" ideian sustatua. Austriarren espainiar inperioaren amaiera ekarri zuen eta Britainia Handiaren nagusitasunaren hasiera.

Hamarrena:

Lurra lantzearen emaitzetatik nekazariak Elizari eman beharreko zatia.

Ilustrazioa:

Ilustrazioa edo *Argien mendea* XVII. eta XVIII. mendeen artean European garatu zen korrante intelektuala izan zen, Antzinako Erregimenaren printzipio guztiak kolokan jarri zituena.

Entziklopedia:

Garaiko ezagutza guztiak bildu zituen obra, funtsezkoa ideia ilustratuen hedapenean. Diderot eta D'Alembertek zuzendu eta Ilustrazioko idazlerik garrantzitsuenek parte hartu zuten.

Fisiokrazia:

XVIII. mendeko bigarren erdian ekonomialari frantsesen artean indarrean zegoen doktrina. Fisiokraten iritziz, nekazaritza zen herrialde baten aberastasunaren oinarria, biztanleei bizi iraupena bermatu eta ekoizpenak pilatzea ahalbidetzen zien jardura.

Liberalismoa:

Estatuaren botere politikoa mugatu eta gizabanakoaren askatasunaren azpitik jartzen duen doktrina politikoa.

Despotismo ilustratua:

- ✓ Absolutismoaren aginte printzipioa eta aurrerabidearen, arrazionalizazioaren eta modernitatearen ideiak bateratzen saiatu zen gobernatzeko era da.
- ✓ Despotismo ilustratua edota *Absolutismo ilustratua* XVIII. mendean Europan nagusitu zen gobernu mota da. Gobernu mota horretan, monarkek beren borondatea inposatzen zuten parlamentuak kontuan hartu gabe; eta aldi berean, Ilustrazioaren ideei filosofikoetan oinarritutako erreformak egiten zituzten administrazioa eta ekonomia arrazionalizatzeko.

Metropoli:

Koloniak dituen eta honen administrazioaz arduratzen den Estatu da.

Kolonia:

Herrialde batek bere mugetatik at okupatutako lurraldea da.

Thomas Jefferson (1743-1826):

Estatu Batuetako hirugarren presidentea izan zen 1801 eta 1809 urteen bitartean. Alderdi demokrata-errepublikarrekoa zen, kongresuko arduradun kontinental, gobernatzaile, estatuko idazkari eta lehendakari ordea ere izan zen. *Amerikako Estatu Batuen Independentzia Deklarazioaren* sarrera idatzi zuen.

George Washington (1732-1799):

Estatu Batuetako armadako buruzagia izan eta gero, eta Britainia Handia iraultzako gudan (1775-1783) garaitu ostean, lehenengo presidentea izan zen.

Felipe V.a Adoretsua (1683-1746):

Espainiako erregea (1700-1746), Frantziako Luis XIV.aren biloba eta Espainiako lehen errege borboia. Karlos II.ak oinordeko izendatu zuenean, Ingalaterrak, Austriak eta Probintzia Batuek, Austriako Karlos artxidukearen aldeko jarrera hartu zuten tronurako, eta Ondorengotza Guda piztu zen (1701-1714). Utrecht-eko ituna sinatu zutenean, Felipe V.a onartu zuten errege, baina Espainiak Gibraltar, Menorca eta Herbeheretan, Italian eta Luxenburgon zituen lurraldeak galdu zituen.

Austriako Karlos artxidukea (1685-1740):

Erromatar Inperio Sainduko enperadorea (1711-1740). Karlos II.ak Felipe V.a oinordeko izendatu zuenean, Ingalaterrak, Austriak eta Probintzia Batuek, Austriako Karlos artxidukearen aldeko jarrera hartu zuten tronurako, eta Ondorengotza Guda piztu zen (1701-1714). Bere anaiaren heriotzaren ondoren, Karlos artxidukeak Austriako koroa jaso zuen oinordetzan. Utrecht-eko ituna sinatu zutenean, Espainiako koroari uko egin behar izan zion.

Karlos III.a (1716-1788):

Espainiako erregea (1759-1788); Karlos VII.a izenaz Napoli eta Siziliako erregea eta Parmako dukea. Felipe V.aren semea. Frantziarekin Famili ituna sinatu zuen, Britainia Handiaren aurka Zazpi Urteko gerrari hasiera emanez. Despotismo ilustratuaren aldekoa izan zen eta Aranda eta Floridablanca ministroen laguntzaz, Espainia modernizatzen saiatu zen.

Planta Berriko Dekretuak:

Felipe V.ak emandako lege-dekretuak, Gaztelako administrazio sistema Espainiako lurralde guztietan inposatzeko helburuarekin. Lurraldea probintzietan banatua geratu zen, bakoitzaren buruan gobernadore lanak betetzen zituen kapitain jeneral bana zegoelarik. Honetaz gain, probintzia bakoitzean justizia administratzaileentzako entzutegiak sortu ziren, udalerrien gobernurako zuzentzaileak eta zergen bilketarako intendenteak.